

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2025eko urriaren 14ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari.

Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 49. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan ezarritakoarekin, argitaratu eta jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko (nola udal bulegoetan hala udal honen egoitza elektronikoan) eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko; erabaki hau behin betiko onetsiko da erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Erdoñana, 2025eko azaroaren 4a

*Alkatea*

**ERIKA LETAMENDI HURTADO**